



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko ekainaren 16a

60. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPekin hitzarmen bat sinatzera, “Nafarroako Ondare Ez-materialaren Artxiboa” proiektua dela eta. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat presta dezan, Nafarroako talde artistikoek Baluarte Ganbera Aretoa erabili ahal izan dezaten beren jardueren erakusleihu eta proiektzio gisa. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko 2007tik 2011ra bitarteko Itunear jasotako akordioak gara ditzan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ikastetxeetako irakasleak programa informatiko berariazkoetan trebatzeko prestakuntza plan bat presta dezan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezan doakoa izanen dela ikasleek banaka erabiltzeko prestatutako curriculum-materiala. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (4. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Erabakia, Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza-gradua ezartzeko aukera aztertuko duen lantalde bat eratzekoa. Hezkuntza Batzordeak onetsia (5. or.).
- Erabakia, Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertuko lantalde bat eratzekoa. Hezkuntza Batzordeak onetsia (5. or.).
- Lan-taldea, Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza-gradua ezartzeko aukera aztertzekoa. Osaerari eta funtzionamenduari buruzko arauak (6. or.).
- Lan-taldea, Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertzekoa. Osaerari eta funtzionamenduari buruzko arauak (6. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPEkin hitzarmen bat sinatzera, “Nafarroako Ondare Ez-materialaren Artxiboa” proiektua dela eta.

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2009ko ekainaren 4an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPEkin hitzarmen bat sinatzera, “Nafarroako Ondare Ez-materialaren Artxiboa” proiektua dela eta.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPEkin hitzarmen bat sinatzera, “Nafarroako Ondare Ez-materialaren Artxiboa” proiektua dela eta

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin hitzarmen bat sina dezan, bi aldeek zehaztuko duten moduan, “Archivo del patrimonio inmaterial de Navarra-Nafarroako ondare ez-materialaren Artxiboa-Archive du patrimoine inmatériel de la Navarre-Archives of immaterial heritage of Navarre” proiektuari sostengu politiko, kultural eta aurrekontukoa emanaz, jarraitasuna eta babes instituzionala izan ditzan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat presta dezan, Nafarroako talde artistikoen Baluarteko Ganbera Aretoa erabili ahal izan dezaten beren jardueren erakusleihen eta proiektu gisa.

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2009ko ekainaren 4an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat presta dezan, Nafarroako talde artistikoen Baluarteko Ganbera Aretoa erabili ahal izan dezaten beren jardueren erakusleihen eta proiektu gisa.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat presta dezan, Nafarroako talde artistikoek Baluarteke Ganbera Aretoa erabili ahal izan dezaten beren jardueren erakusleihu eta proiektzio gisa

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa plan bat presta

dezan, Nafarroako talde artistikoek Baluarteke Ganbera Aretoa erabili ahal izan dezaten beren jardueren erakusleihu eta proiektzio gisa.

2.- Plan hori Legebiltzarrean aurkeztu beharko da 2009ko azaroaren 1a baino lehen, izan dezakeen kostu ekonomikoa 2010eko aurrekontuan aurreikuste aldera.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko 2007tik 2011ra bitarteko Itunean jasotako akordioak gara ditzan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2009ko ekainaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko 2007tik 2011ra bitarteko Itunean jasotako akordioak gara ditzan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko 2007tik 2011ra bitarteko Itunean jasotako akordioak gara ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bete dezan 2007ko uztailaren 20ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko Itunean eta Itun horretan ezarritako zenbait neurri garatu eta aplikatzeko 2008ko ekainaren 3an sinatutako akordioan hitzartutakoa, sindikatuekiko elkarrizketa trabagabeen bidez, Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatearen hobekuntzan eragina duten neurriak bermatze aldera.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ikastetxeetako irakasleak programa informatiko berariazkoetan trebatzeko prestakuntza plan bat presta dezan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2009ko ekainaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ikastetxeetako irakasleak programa informatiko berariazkoetan trebatzeko prestakuntza plan bat presta dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ikastetxeetako irakasleak programa informatiko berariazkoetan trebatzeko prestakuntza plan bat presta dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berariazko programa informatikoei buruzko prestakuntza plan bat egin dezan Nafarroako ikastetxeetako irakasleentzat, baliabide informatikoen erabileraren normalizazioa helburu duen eredu bat ezartze aldera, ikasgeletan gehiago eta hobeto ikastea ahalbidetuko duen tresna baita.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren baliabideak jar ditzan Nafarroako ikastetxeetako irakasleen eskura, haiek hezkuntza eredu informatizatu bat abian jarri ahal izateko.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezan doakoa izanen dela ikasleek banaka erabiltzeko prestatutako curriculum-materiala.

HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezan doakoa izanen dela ikasleek banaka erabiltzeko prestatutako curriculum-materiala."

Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak 2009ko ekainaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki

zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko maiatzaren 22ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 10an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Erabakia, Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza-gradua ezartzeko aukera aztertuko duen lan-talde bat eratzekoa.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 113. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin “Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza-gradua ezartzeko aukera aztertuko duen lan-talde bat eratzeko erabakia”. Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak 2009ko ekainaren 9an hartu zuen erabaki hori. Hona erabakiaren testua:

“1. Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza-gradua ezartzeko aukera aztertuko duen lan-talde bat eratzeko Hezkuntza Batzordean.

2. Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, beharrezkoa dena xeda dezan aipatu lan-taldearen osaerari eta eraketari buruz.”

Iruñean, 2009ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia, Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertzeko lan-talde bat eratzekoa.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 113. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin “Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertzeko lan-talde bat eratzeko erabakia”. Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak 2009ko ekainaren 9an hartu zuen erabaki hori. Hona erabakiaren testua:

“1. Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertzeko lan-talde bat eratzeko Hezkuntza Batzordean.

2. Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, beharrezkoa dena xeda dezan aipatu lan-taldearen osaerari eta eraketari buruz.”

Iruñean, 2009ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Lan-taldea, Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza-gradua ezartzeko aukera aztertzekoa.

OSAERARI ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUAK

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2009ko ekainaren 9an, Hezkuntza Batzordeak onetsi zuen, Erregelamenduko 55.2 artikularekin bat, lan-talde bat sortzea, Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikuntza-gradua ezartzeko aukera aztertzeko, eta Legebiltzarreko Mahaiari eskatu zion xedatu beharrekoa xeda zezala aipatu ponentziaren osaerari eta funtzionamenduari buruz.

Lan-taldea eratu eta lanean has dadin, ondo-koa ERABAKI DA:

1. Epe bat ematea, 2009ko ekainaren 18ko 12:00ak bitartekoa, parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak aipatu lan-taldeko ordezkaria izenda dezan, Hezkuntza Batzordeko kideen artetik, Legebiltzarreko Mahaiari idazki bat

zuzenduta. Idazki horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko talde edo elkarteko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari hura ordezkari dezan.

2. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak lan-taldea zein egunetan eratuko den erabakiko du, eta lan-taldea lanean hasiko da.

3. Azterlana prestatzeko epea 2010eko martxoaren 31n bukatuko da.

Behin txostena prestatuta, Parlamentuko Mahaiari igorriko zaio, eta hark Batzordeko kideei bidaliko die, txostena eztabaidatu eta bozkatuko den bilkuraren deialdiarekin batera.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Lan-taldea, Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertzekoa.

OSAERARI ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUAK

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2009ko ekainaren 9an, Hezkuntza Batzordeak onetsi zuen, Erregelamenduko 55.2 artikularekin bat, lan-talde bat sortzea, Hezkuntzari buruzko Oinarrien Foru Lege proposamenaren edukia eta plan estrategikoa aztertzeko, eta Legebiltzarreko Mahaiari eskatu zion xedatu beharrekoa xeda zezala aipatu ponentziaren osaerari eta funtzionamenduari buruz.

Lan-taldea eratu eta lanean has dadin, ondo-koa ERABAKI DA:

1. Epe bat ematea, 2009ko ekainaren 18ko 12:00ak bitartekoa, parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak aipatu lan-taldeko ordezkaria izenda dezan, Hezkuntza Batzordeko kideen artetik, Legebiltzarreko Mahaiari idazki bat

zuzenduta. Idazki horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko talde edo elkarteko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari hura ordezkari dezan.

2. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak lan-taldea zein egunetan eratuko den erabakiko du, eta lan-taldea lanean hasiko da.

3. Azterlana prestatzeko epea 2010eko otsailaren 28an bukatuko da.

Behin txostena prestatuta, Parlamentuko Mahaiari igorriko zaio, eta hark Batzordeko kideei bidaliko die, txostena eztabaidatu eta bozkatuko den bilkuraren deialdiarekin batera.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

